

## **AURKEZPENA**

---

*Altzako Historia Mintegiko lagunen lanari esker, 1988. urtean, “Altza, hautsa kenduz” liburuak argia ikusi zuen. Ordutik honera ez dira geldirik izan eta beren ekimenez lan garrantzitsuak garatu dira:*

89. urtean “Altzako ibilbide historikoa” prestatu zuten eta liburuarekin batera zabalduta. 90. urtean “Altzako Toponimia mapa” burutu eta argitaratu zen. 91. urtean jasotako materiale guztiaren antolaketaz arduratzen hasten dira. 92. urtean “Altzako bilduma” gauzatzen da, lagun hauek bilduriko materialea publikoari zabaltzen zaio liburutegi barruan, horren katalagoa eta gidarekin batera. 93. urtean aurreko lanarekin jarraituz, bide berriak jorratzen hasiko dira. 94. urtean “Herrerako Historia Argazkitan” erakusketa zabaltzen da San Luisetan.

*Kultur Etxearentzat guztiotan parte hartzea poz handia izan da.*

*Eta orain, 94a amaitu aurretik, “Altza, hautsa kenduz - II” liburua irakurtzeko parada emango digute. Eta berriz ere Kultur Etxeak parte hartu nahi izan du.*

*Aurrekoan bezala “hautsa kenduz” etorri zaizkigu, zenbaitetan atzeranzko begirada bat emanez eta, besteetan, gaurkotasuna mantenduz ere.*

*A. Kortajarenak arestian aipaturiko erakusketan eskainitako hitzaldia ekarri digu, Herreran suertaturiko hainbat gertakizun azalduz. Herrerarekiko zorra ordaintzeko modurik ezin hobea iruditzen zaigu.*

*A. Cañamerok Altzako muga historikoetan sartuak zeuden pare bat auzune aztertu ditu, aurrekoan bezala, ikerketa urbano eta demografiko ederrak eginez.*

*I. Landa eta J.C. Etxebeste Erdi Aroan sartu zaizkigu, toponimoetaz baliatuz horren ezezaguna dugun garaia hurbildu nahian, beti ere Altzan kokaturik.*

*A.M. Calvo eta M. Lopez lagunek azken urteotako lanaren fruitua eskaini digute: Altzan harrizko gurutzeak non dauden, nolakoak diren, e.a. jakinda beren garrantziaz ohartuko gara.*

*Ustez R. Inzagayrena den lana ere atera nahi izan dugu argira, bai egilearen garrantziaz oharturik, bai, bide batez, Ubako kaperaren historiari buruz idatzitakoa zabaldu nahian.*

*Joan den 93.ean Altzako "Itxaropena" Abesbatzak 25 urte bete zituen, aukera paregabea bere historiaz ere arduratzeko. L. Garmendiaren lumari esker altzatar hauek gure lurraldearen berri nola zabaldu duten jakingo dugu.*

*J.R. Fernandezek Altza ezagutzeko bidea ematen digu, bere oharrei jarraituz Altzak bere naturan oraindik duen edertasuna dasta dezakegularik.*

*B. Barandiaranek bertsoen bitartez erreflexioarako gaiak utzi dizkigu: Garberan izan diren aldakuntzak eta gaurko gaztediaren bizitza...*

*J.M. Irigoienek olerki berezia ekarri digu: "Altzari buruzko pintzeladak zer esan aurkezpenik behar ez duten gizonaz eta lanetaz?*

*J. Garridok, Iparraldeko ilarri batetan oinarrituz, azalak prestatu ditu.*

*Liburuaren egituraketari buruz zenbait aipamen egiteari derrigorrezkoa deritzogu. Batetik, euskara eta gaztelera hizkuntzen arteko erabilpenean oreka mantentzen saiatu garela. Ildo horretan zenbait atalek sarrera txiki bat izango dute: gaztelera idatzitakoek euskaraz eta euskaraz idatzitakoek gaztelera. Sarreratxo hori ez da, noski, idazleek egina eta ez da laburpen soil bat ere. Bestetik, euskaldunak dena ez dagoela euskara batuaz idatzita ohartuko dira, A. Kortajarena-ren gogoa errespetatu nahi izatea eta B. Barandiaran-en hizkera bizia mantentzea helburu izan dugu.*

*Hala ere asmoak ez dira bakarrik iraganean geratuko. Hemendik aurrerako helburua liburuxkak maizago argitaratzea da eta posible den neurrian egungo gaiak aztertzea ere. Dagoeneko, horietako batzuk poltsikoan geratu zaizkigu, oraingo honetan ez baitzegoen denetarako tokirik edota denborarik: gaurko Altzako mugei buruzko eztabaida, Askagintzak bideraturiko Altzako gazteria eta drogomenpekotasunei buruzko ikerketa, egungo elkarteen gida, azken urteotako hauteskundei buruzko datuak, etabar luze batek poltsiko hori bete digute.*

*Bestalde, asmoei dagokienez ere, Liburutegian kokatzen den "Altzako Bilduma" ez dago amaiturik eta hemendik, behin berriro, zuen lagunten eske gatozkizue: idatziak, argazkiak, egitarauak, edozein dokumentu, dena baliagarria izango da. Materialea behar bezala prestatz gero altzatar guztiei -nahiz gaurkoei, nahiz biharkoei- eskura diezaiekegu . Gure atea zabalik dira, beti bezala.*

*Laister berriro zuen artean izango garelakoan, gure Altza hau hobeto ezagutzeko aukera ematen dizkiguten ondorengo orrialdeak dasta ditzazuela opa dizuegu.*

*Altzan 1994ko Abenduak 22*

*Amaia Almirall  
Casares Kultur Etxeko Arduraduna*

## **PRESENTACION**

---

*Gracias al trabajo de los componentes de la Comisión de Antecedentes Históricos de Altza en 1988 se pudo publicar el libro "Altza, hautsa kenduz - II". Desde entonces no han parado y gracias a su iniciativa se han desarrollado trabajos importantes:*

*Año 89, preparan el "Itinerario histórico de Altza" que se distribuye junto con el libro. Año 90, realizan el "Mapa topográfico de Altza" para su posterior publicación. Año 91, comienzan a trabajar en la organización de todo el material recogido. Año 92, la "Colección local de Altza" es una realidad, dentro de la biblioteca se pone a disposición del público el material recopilado por la Comisión, junto con un catálogo y una guía sobre la colección. Año 93, continuando con lo anterior comienzan a encaminarse hacia nuevos trabajos. Año 94, se realiza la exposición "Historia de Herrera en Fotografías" durante las fiestas del lugar.*

*Para la Casa de Cultura siempre ha sido muy gratificante participar en todos estos trabajos.*

*Y ahora, antes de terminar este 94, nos ofrecen la posibilidad de leer "Altza, hautsa kenduz - II". Y nuevamente la Casa de Cultura ha querido participar.*

*Como en la anterior ocasión han venido "desempolvando" (hautsa kenduz), a veces con una mirada hacia el pasado y, en otras ocasiones, manteniendo la actualidad.*

*A. Kortajarena nos trae la conferencia que ofreció en la exposición anteriormente mencionada, aportando diversos acontecimientos sucedidos en Herrera. Nos ha parecido el mejor modo de saldar nuestra deuda con Herrera.*

*A. Cañamero ha analizado dos zonas incluidas en los límites históricos de Altza, y, al igual que en la anterior ocasión, realiza un buen estudio demográfico y urbano.*

*I. Landa y J.C. Etxebeste se han internado en la Edad Media, valiéndose de los topónimos nos acercan esta época tan desconocida, siempre dentro de Altza.*

*A.M. Calvo y M. Lopez nos ofrecen el fruto de su trabajo en los últimos años: las cruces de piedra en Altza. Conocer dónde están, cómo son, etc nos ayudará a comprender su importancia.*

Tambien hemos querido sacar un trabajo que parece fue escrito por R. Inzagaray. Dos razones nos han impulsado: ser conscientes de la importancia de su autor y el interés por divulgar lo escrito sobre la historia de la capilla de Uba.

El pasado 93, la Coral "Itxaropena" de Altza cumplió su 25 aniversario, ¿qué mejor ocasión para conocer su historia?. Gracias a la pluma de L. Garmendia podremos saber cómo estos altzatarras han difundido nuestra tierra.

J.R. Fernandez nos da pie a conocer Altza, siguiendo sus indicaciones podemos disfrutar de la belleza que todavía conserva Altza en su naturaleza.

B. Barandiaran a traves de sus bertsos nos ha dejado dos temas para reflexionar: los cambios producidos en Garbera y la vida de los jóvenes de hoy...

J.M. Irigoien nos trae una poesía muy especial "Altzari buruzko pintzeladak" (pinceladas sobre Altza), ¿qué decir de un hombre y una obra que no necesitan presentación?

J. Garrido, basándose en una estela funeraria de Iparralde, ha diseñado las portadas.

En cuanto a la estructura del libro creemos conveniente realizar algunas indicaciones. Por un lado, que hemos intentado mantener un equilibrio en la utilización del euskara y del castellano. En ese sentido algunos artículos tienen una pequeña introducción: los escritos en euskara en castellano y al revés. Esa pequeña introducción no ha sido, por lo tanto, escrita por los autores y tampoco es un simple resumen. Por otra parte, los euskaldunes se darán cuenta que no todo está escrito en euskara batua, el objetivo ha sido respetar el deseo de A. Kortajarena y de mantener el estilo vivo del lenguaje de B. Barandiaran.

Sin embargo las intenciones no se van a quedar sólo en el pasado. A partir de ahora la intención es publicar más a menudo y, en la medida de lo posible, analizar temas de más actualidad. Ya se nos han quedado algunos en el bolsillo, pues en esta ocasión no quedaba espacio ni tiempo para todo: la discusión sobre los límites del Altza actual, la investigación sobre juventud y drogodependencias impulsada desde Askaintza, una guía de las asociaciones, datos sobre las elecciones de los últimos años, y un largo etcétera nos llenan ese bolsillo.

Por otra parte, y en lo que a intenciones se refiere, la "Colección Local de Altza" situada en la Biblioteca no está terminada y desde aquí, nuevamente, queremos pedir vuestra ayuda: escritos, fotografías, programas, cualquier documento, todo es válido. Preparando adecuadamente ese material se lo podemos ofrecer a todos los altzatarras -a los de hoy y a los de mañana-. Nuestras puertas están abiertas, como siempre.

Seguros de que pronto volveremos a estar entre vosotros, os deseamos que disfrutéis saboreando estas páginas que nos dan la oportunidad de conocer mejor a Altza.

Altza, 22 de Diciembre de 1994

Amaia Almirall  
Responsable de la Casa de Cultura Casares